



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2015eko otsailaren 12a

21. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### E SAILA:

##### **Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da “Erorien omenezko Monumentua” deiturikoaren kriptan 1936ko altxamenduarekin zerikusirik duen ospakizun oro eragotz dezan, erlijiosoa nahiz beste edozein motatakoa izan. Lehendakaritza, Justizia eta Barne Batzordeak onetsia (2. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Hezkuntza Departamentua premiatzen da aktiboki inplika dadin eta bere erantzukizunari aurre egin diezaion Tuterako Kontserbatorioaren egiturari, antolamenduari, funtzionamenduari eta finantzaketari dagokienez. Hezkuntza Batzordeak onetsia (3. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak adierazten du AENAREN parte bat burtsara irtetearen aurka dagoela. Sustapen Batzordeak onetsia (3. or.).

#### F SAILA:

##### **Galderak:**

- Galdera, 2015erako aurrekontuak izapidetzeko prozesuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (4. or.).
- Galdera, Espainiako Itzulia Nafarroatik iragateari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (4. or.).
- Galdera, mendetasunerako arretarako prestazioari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (6. or.).
- Galdera, Elizondon 2014ko uztailearen 4an izandako uholdeetan Nafarroako Larrialdietako Agentziak egindako lanari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (7. or.).
- Galdera, Forzaingoak Guardian Homeland Security enpresari erositako materialari, adituen prestakuntzari eta kontratatutako zerbitzuei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (11. or.).
- Galdera, Nafarroaren merkataritza-balantzak hobera egin izanak diru-bilketan dauzkan eraginei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (12. or.).
- Galdera, “osasunerako zentimoa” deitutakoa itzultzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (13. or.).
- Galdera, “osasunerako zentimoa” dela-eta egiteko dauden itzulketak ordaintzeko prozesurako egutegi-aurreikuspeni buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (15. or.).
- Galdera, jakiteko zer egunetan jakinarazi zitzaizkion Nafarroako Gobernuari Arbitraje Batzordearen maiatzaren 15eko ebazpena, 2007tik 2011ra bitarteko BEZaren kuoten itzulketari buruzkoa, eta VWen 2007tik 2011ra bitarteko tributazioa dela-eta Auzitegi Gorenean jarritako errekurtsua. Foru Diputazioaren erantzuna (16. or.).

---

**E saila:**  
**JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

---

**Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da “Erorien omenezko Monumentua” deiturikoaren kriptan 1936ko altxamendua-rekin zerikusirik duen ospakizun oro eragotz dezan, erlijiosoa nahiz beste edozein motatakoa izan.**

*LEHENDAKARITZA, JUSTIZIA ETA BARNE BATZORDEAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Lehendakaritza, Justizia eta Barne Batzordeak, 2015eko otsailaren 4an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ‘Erorien omenezko Monumentua’ deiturikoaren kriptan 1936ko altxamenduarekin zerikusirik duen ospakizun oro eragotz dezan, erlijiosoa nahiz beste edozein motatakoa izan”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Honakoa du testua:

“• Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Erorien omenezko Monumentua deiturikoaren kriptan 1936ko altxamendu kol-

pistarekin zerikusirik duen ospakizun oro eragotz dezan, erlijiosoa nahiz beste edozein motatakoa. Zehazki, “Hermandad de la Cruz” izenekoak ez dezan kriptan erabil, aipatua bezalako ospakizunak egiten jarraitzen duen bitartean.

- Nafarroako Parlamentuak kasuko administrazioa premiatzen du agin dezan kriptan horretan dautzan aipatu jeneralen gozpuzkiak egokitzen den toki pribatura eramateko.

- Nafarroako Parlamentuak Artzapezpikutzak premiatzen du kriptan horretan altxamendu militarren aipamen espresa egiten duten kontsigna, grabatu eta grafiko guztiak ken ditzan”.

Iruñean, 2015eko otsailaren 4an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

**Erabakia. Horren bidez, Hezkuntza Departamentua premiatzen da aktiboki inplika dadin eta bere erantzukizunari aurre egin diezaion Tuterako Kontserbatorioaren egiturari, antolamenduari, funtzionamenduari eta finantzaketari dagokienez.**

*HEZKUNTZA BATZORDEAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Hezkuntza Batzordeak, 2015ko otsailaren 3an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Hezkuntza Departamentua premiatzen da aktiboki inplika dadin eta bere erantzukizunari aurre egin diezaion Tuterako Kontserbatorioaren egiturari, antolamenduari, funtzionamenduari eta finantzaketari dagokienez”

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Honakoa du testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua premiatzen du aktiboki inplika dadin eta bere erantzukizunari aurre egin diezaion Tuterako Kontserbatorioaren egitura, antolamendua, funtzionamendua eta finantzaketa zehazteari dagokionez, halako moduan non 2015-2016 ikasturtetik aitzina ziurtatuta egonen baitira Nafarroako Erriberan musika-irakaskuntzen egonkortasuna, jarraitutasuna eta garapena, bai eta herritarrek horiek eskuragarri izatea ere”

Iruñean, 2015eko otsailaren 4an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

**Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak adierazten du AENAREN parte bat burtsara irtetearen aurka dagoela.**

*SUSTAPEN BATZORDEAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Sustapen Batzordeak, 2015eko otsailaren 5ean egindako Osoko Bilkuran, ondoko erabakia onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak adierazten du AENAREN parte bat burtsara irtetearen aurka dagoela”

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Honakoa du testua:

“1. Nafarroako Parlamentua AENAREN parte bat burtsara irtetearen aurka dago, gure ustez publiko izaten jarraitu beharko lukeen sektore estrategiko bat pribatizatzea delako.

2. Nafarroako Parlamentuak Estatuko Gobernuak premiatzen du ez dezan aitzinera eraman aireportuen sektorea pribatizatzea ekar dezakeen inolako ekimenik, eta bide horretan egin dituen balizko urratsak atzera eraman ditzan.

3. Nafarroako Parlamentuak bere elkartasuna adierazten die Noaingo aireportuko langileei nahiz gainontzeko aireportuetakoei, eta babestu egiten ditu sektore publikoaren alde egiten dituzten balizko mobilizazioak”

Iruñean, 2015eko otsailaren 5ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

## **Galdera, 2015erako aurrekontuak izapidetzeko prozesuari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maiorga Ramírez Erro jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, 2015erako aurrekontuak izapidetzeko prozesuari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2014ko irailaren 12ko 98. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2014ko urriaren 3an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **ERANTZUNA**

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du, 2014ko irailaren 4ko 2290 sarrera-zenbakia duena, 2015eko aurrekontuen izapidetze-prozesuari buruzko informazioa eskatzeko (8-14/PES-00162). Hauxe erantzun dio Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu kontseilariak:

Honakoa da eskatutako alderdietarako egin daugun egutegia:

- Gastu-sabaiaren onespina: 2014ko irailaren 19a.
- Aurreproiektuaren aurkezpena: 2014ko urriaren 15a
- Ekonomia eta Gizarte Kontseiluari igortzea: 2014ko urriaren 15a
- Parlamentuko izapidetzea: 2014ko urriaren 31n aurkeztuko zaio Parlamentuari.

Bigarren galderari dagokionez, jakitera ematen dizugu ezen urtero, aurrekontuen aurreproiektua Ekonomia eta Gizarte Kontseilua osatzen duten agente guztiei aurkezten zaiela baloratu eta parte har dezaten.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2014ko urriaren 2an

Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu kontseilaria: Lourdes Goicoechea Zubelzu

## **Galdera, Espainiako Itzulia Nafarroatik iragateari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maiorga Ramírez Erro jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Espainiako Itzulia Nafarroatik iragateari buruzkoa. Galdera

argitaratu zen 2014ko irailaren 12ko 98. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2014ko urriaren 3an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

## ERANTZUNA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du jakiteko zein alde dagoen Espainiako Txirrindularien Itzuliak Nafarroan 2012an izan zuen kostuaren eta 2014an izan duen kostuaren artean (8-14/PES-00163). Hauxe da Gizarte Politiketako kontseilariaren erantzuna:

Idatzizko galdera horren erantzuna parlamentari berak egindako PEI 00290 informazio-eskariari eman diogun bera da. Ondoren transkribatu dudana da.

“Egia esan, 2012an Nafarroako Kirol eta Gazteriaren Institutuak Unipublicekin sinatu zuen kontratuaren kostua ez zitzaion ekitaldi bakar bati egotzi, baizik eta hurrengo ekitaldiari (2013) ere. Honakoa izan zen ekitaldi horren kostu xehakaturia:

- Bostehun mila euro (500.000,00 €), BEZa barne, Unipublic, S.A.ri, 2012rako Nafarroako Aurrekontu Orokorretako “2012ko Espainiako Txirrindularien Itzuliko etapen kontratua” izeneko 940002-95100-2269-336103 kontusailaren kargura.

- Hogeita hamabost mila euro (35.000,00 €), BEZa barne, 2012rako Nafarroako Aurrekontu Orokorretako “Kirol-lankidetzarako berezko jarduketak” izeneko 940002-95120-2269-336100 kontusailaren kargura; hona xehakaturia:

- 17.700 euro, BEZa barne, Nafarroako Unibertsitate Publikoaren alde, Bulego Iraunkorra eta Prentsa Aretoa jartzeko barruti bat alokatzeko.

- 7.300 euro, BEZa barne, toki esparruko sustapen-jarduketaren kontzeptuan: ikasleekin hiri barneko txirrindulari probak egitean zetzan.

- 10.000 euro, BEZa barne, gisa askotako eta ustekabeko gastuen kontzeptuan, zuzenean lotutakoak eta egoztekoak 2012ko Itzuliko lehen bi etapak egiteari.

- Laurehun eta laurogeita hamar mila euro (490.000,00 €), BEZa barne, 2012rako Nafarroako Aurrekontu Orokorretako “2012ko Espainiako Txirrindularien Itzuliko etapen kontratua” izeneko 940002-95100-2269-336103 kontusailaren kargura. Zenbateko hori 2013ra luzatu zen.

Kontrapartida gisa, honako kontraprestazioak aipa daitezke, marketinaren, publizitatearen edo Espainiako Itzuliaren irteerarekin lotutako bestelakoen artean, 2012ko eta 2013ko edizioetan.

## 2012ko Itzulia

a) 2012ko Espainiako Itzuliaren 67. edizioa Iruñean hasi zen, eta lehenengo bi etapak osorik egin ziren Nafarroako lurraldean.

b) Ibilbidearen aurkezpeneko gala:

2012ko urtarrilaren 12an, Iruñeko Baluarte Biltzar Jauregian, Unipublicek 2012ko Espainiako Itzuliaren ibilbide ofizialaren aurkezpena egin zuen, 800 gonbidatu baino gehiagoko gala baten ospakizunarekin.

c) 2012ko Espainiako Itzuliaren sustapen-iragarkia, Espainiako Telebistan:

Unipublic, S.A.k Itzuliaren irteera ofizialaren sustapen-iragarkia ekoitzi zuen. Haren errodajea Nafarroako Gobernuak hautatutako Nafarroako bost herritan egin zen, eta 2012ko uztailean, abuztuan eta irailean eman zen Espainiako Telebistan.

d) “2012ko Espainiako Itzuliaren” publizitate instituzionala:

- Publizitate-arkua: 2012ko Espainiako Itzuliaren etapa guztietan, helmugarako 6. kilometro-puntua seinalatuta egon zen 7 x 15 m inguruko publizitate-euskarri batekin, “Reyno de Navarra” logotipoarekin eta honako informazio-testuarekin: “6 KM A META” Alde banatan 50 m-ko bi publizitate-hesi zeuden, “Reyno de Navarra” logotipoarekin.

- Ibilbide liburua: izaera ofizialeko argitalpen bat, 3.000 ale inguruko tiradarekin. Kreditatutako hedabide, agintari, karabana, tokiko komite eta abarrei eskuratu zitzaizkien. Bertan, Nafarroako Gobernuari buruzko argazki bat eta testu bat zeukan orrialde bat ageri zen.

- Irteerako eta helmugako publizitate-hesiak: 20 metroko tarte bat erreserbatuta helmugako linean eta 20 metro irteerako linean, Nafarroako Gobernuaren publizitate instituzionala jartzeko.

## 2013ko Itzulia

“Reyno de Navarra” logotipoa honakoetan jartzea:

- a) Ibilbide liburuan (orri bete hartzen duen argazkia).

- b) Etapa bakoitzean, helmugarako 15. kilometro-puntuan jarritako publizitate-arkuan, alde banatan publizitate-hesien bi barrera zituela, bakoitza 50 metrokoa, logotipo berarekin.

- c) Prentsa-aretoan.

- d) [www.lavuelta.com](http://www.lavuelta.com) webgune ofizialean

- e) 2013ko Itzuliaren Egunkari Ofizialean.

Azken horietan, gainera, "Babesle Ofizialaren" izaeraren aipamena ageri da.

Publizitate horren ekoizpena Unipublicek egin du.

### 2014ko Itzulia

2012an sinatutako kontratuan, Unipublicek ez zuen inongo kontraprestaziorik ezarri, eta Nafarroako Kirol eta Gazteriaren Institutuak ere ez zuen inongo konpromisorik hartu. Aurreko hori gorabe-

hera, 2014ko Itzulian, Nafarroako Gobernuak etapako irabazlearentzako lore-sorta eta trofeoa ordaindu ditu."

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 94. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2014ko urriaren 3an

Gizarte Politiketako kontseilaria: Íñigo Alli Martínez

## Galdera, mendetasunerako arretarako prestazioari buruzkoa.

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Txema Mauleón Echeverría jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, mendetasunerako arretarako prestazioari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2014ko irailaren 12ko 98. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2014ko urriaren 6an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### ERANTZUNA

Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeko foru parlamentari Txema Mauleón Echeverría jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du mendetasunaren eta haren arretaren balorazioari buruzko informazioa eskatzeko (8-14/PES-00161). Hauxe da Gizarte Politiketako kontseilariaren erantzuna:

1) Familia-unitatearen gaitasun ekonomikoaren balorazioarekin lotutako lanak, Mendetasunaren espedienteetakoak, MM Consulting Financiero, S.L. merkataritza-enpresak egiten ditu gaur egun.

Espedienteen balorazioa azpi-kontratazioaren bidez egiten da, mendetasunarengatiko prestazioak emateko epeak aritze aldera, ezin izan baita PANAREN plantilla handitu lan horiek egiteko behar den profila (ekonomialaria) duten langileekin.

Kontratuaren ezaugarriak:

– Laguntza teknikoko kontratua, Europako atalasetik behar izan diren irekiaren bidez izapidetua. Esleitzeko irizpidea eskaintza onenarena da.

– Kontratuaren xedea: Mendetasunarengatiko prestazioak eskatzen dituzten pertsonen gaitasun ekonomikoa baloratzeko txostenak egitea.

– Kalkulatutako balioa, balizko luzapena barne: 152.902,30 euro (BEZa barne).

– Esleipen-prezioa: 57.072,00 € (BEZa barne). Prezioak berrikusteko aukerarik gabe.

– Exekuzio-epea: 2013ko maiatzaren 29tik 2013ko abenduaren 31ra. 2014ko abenduaren 31ra arteko luzapena egin daiteke.

2) Legegintzaldian zehar soilik azpi-kontratatu dira mendetasuna duten pertsonen familia-unitatearen gaitasun ekonomikoaren balorazioarekin lotutako lanak.

Aldiak eta kontratatutako enpresak.

Aldia	Entitatea
2010-02-18tik 2011-12-31ra	MM Consulting Financiero, S.L.
2012-03-29tik 2012-12-31ra	Fundación Koine-Aequalitas
2013-05-29tik 2014-12-31ra	MM Consulting Financiero, S.L.

Kontratuaren kopia erantsi dugu, pdf dokumentu batean.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 94. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2014ko urriaren 3an

Gizarte Politiketako kontseilaria: Íñigo Alli Martínez

(Oharra: Aipatutako eranskina eskuragarri dute foru parlamentariak, parlamentu-kudeaketako Ágora sisteman.)

## **Galdera, Elizondon 2014ko uztailaren 4an izandako uholdeetan Nafarroako Larrialdietako Agentziak egindako lanari buruzkoa.**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Eloy Villanueva Cruz jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Elizondon 2014ko uztailaren 4an izandako uholdeetan Nafarroako Larrialdietako Agentziak egindako lanari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2014ko irailaren 12ko 98. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2014ko urriaren 6an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **ERANTZUNA**

Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularrari atxikitako Eloy Villanueva Cruz jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Elizondon, uztailaren 4an, gertatutako uholdeei buruz (8-14/PES-00170). Hauxe erantzun dio Lehendakari-tza, Justizia eta Barneko kontseilariak:

Informazioa eskatzen da Elizondon, uztailaren 4an, izan zen uholdeari buruz. Nafarroako Larrialdietako Agentziak, Uholdeen Plan Berezian jasotakoa betez, 07:00etatik 21:00etara egindako jarduketan ordukako aipamena nahi da. Bidezkoa den kasuetan, halaber, eskatzen da lerroka eta aipa daitezela ordualdi bakoitzean jarduketa horiek eta Baztan ibaiak Oharriz parean izandako emari-datuak.

Aurreko eguneko 17:55ean alerta laranja jaso ondoren, 112 SOS Nafarroa Larrialdien Kudeaketarako Zentrotik SMS bidezko oharrak bidali zitzaizkien alerta horrek ukitutako eremuetako alkatuei eta tokiko polizietako buruei. Halaber, ohar hori ekintza talde guztiei bidali zitzairen. Neurri horiek abian jartzearekin, ulertu beharra dago Uholde Plana larrialdi aurreko fasean sartu zela.

112 SOS-Nafarroaren Koordinazio Aretatik jarraipena eta behaketa egiten hasten da, areto horretako langileetatik eta suhiltzaileetatik (guardiako arduraduna) beren txandan lanean ari ziren langileen parte-hartzearekin eta gertakari horiek urrutitik jarraitzeko tresna informatikoen laguntzarekin (METEOSIG eta Nafarroako Gobernuaren aforo-estazioetako datuak eta Konfederazio Hidrografikoetako datuak).

Alerten indarraldia 03:00etan amaitua zen arren, goizeko 07:00ak aldera jakin zen Pirinioetako eta Kantauriko aldeetan euri trinkoa zegoela.

Hartara, 07:09an NA-138 errepidean, Esteribarren, ur-putzuak zeudela informatu zen. 07:11n, informatu zen Luzaideko Gañekoleta auzoan uholdea zegoela. 07:00etatik aurrera: Erratzuko, Bera, Elizondoko eta Baztango beste herri batzuetako deiak jaso ziren. Hori dela eta, suhiltzaileak eta polizia mobilizatu ziren.

Oronozko suhiltzaileen eskualde-parkeko efektiboak, Ur-erreskateko Taldea eta beste parke batzuetako errefortzuko 20 suhiltzaile bertaratu ziren, bai eta Foruzaingoaren bederatzi patruila eta Guardia Zibileko agenteak ere.

Harrapatutako pertsonen egoera zela-eta, bi erreskate zail egin behar izan ziren. Lehenengoa, Elizondoko igerilekuetan. Bertatik, langile bat zodiac batekin atera behar izan zen. Suhiltzaileek ordubete behar izan zuten harengana iristeko; beste hiru pertsona ere ebakatu behar izan ziren, baina arrisku txikiagoarekin. Beste erreskate zaila Elizondoko zahar etxeko behe-solairuan egin behar izan zuten ur azpiko erreskateko taldeko efektiboek.

Gainera, adineko beste bi pertsona etxabeetatik atera behar izan ziren, eta Arizkun gazteen kanpamendu batean parte hartzen ari zirenak beren baliabideez atera ziren. Ura zela eta, zenbait eraikin hustu behar izan ziren; bestek beste, Elizondoko osasun-etxea. Arreta lanak Iruriko instalazioetan egin behar izan ziren.

Kalte handienak Elizondon izan baziren ere, Erratzun, Arizkun, Beartzunen, Gartzainen, Oronozen eta Donezteben ere esku hartu behar izan zen.

Uholdeen planeko 1. maila 14:15ean desaktibatuta bazen ere, normaltasunera itzultzeko eragiketarako arratsaldean ere luzatu ziren, bai eta uztailaren 5ean, larunbatez, eta uztailaren 6an, igandean, ere. Nafarroako Larrialdietako Agentziako suhiltzaileek ez ezik, Bera, Lesaka, Luzaide eta Agoizko parkeetako suhiltzaile boluntarioek ere parte hartu zuten.

Erantsitako artxiboan aipatzen dira Nafarroako Larrialdietako Agentziako suhiltzaileek 07:00etatik 21:00etara parte hartutako gertakariak, lehenengo erlaitzean, uztailaren 5ekoak, bigarren erlaitzean, eta uztailaren 6koak, hirugarrenean. Lehenengo erlaitzean, abisuaren tokia eta arrazoia ageri dira, bai eta Baztan ibaiak Oharriz zuen aforoa ere, lerrotuta.

Hori guztia, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 186. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2014ko urriaren 2an  
Lehendakaritza, Justizia eta Barneko kontseilaria: F. Javier Morrás Iturmendi

## 2014ko uztailaren 4a, ostirala

ID	ORDUA	ALTUERA	EMARIA	TOKIA	DESKRIBAPENA
	Ofiziala	metroak	m3/seg		
28460	07:17	146	712	Erratzu (BAZTAN), Dorratxipia baserria	BAZTANGO UHOLDEAK
28592	7:27	166	942	Arizkun (BAZTAN), Aintzialde	BAZTANGO UHOLDEAK
28491	7:46	216	1.410	Beartzun (BAZTAN),	BAZTANGO UHOLDEAK
28480	7:54	239	1.664	Elbete (BAZTAN),	ELIZONDOKO UHOLDEAK
28445	8:00	254	1.844	Oronoz (BAZTAN), N-121A 37 K.P.	ELIZONDOKO UHOLDEAK
28584	8:04	264	1.963	Elizondo (BAZTAN), Jaime Urrutia karrika	URAK ESKISAROY JATETXEA HARTU DU. MOTOPONPA JARRI BAINA EZ DA NAHIKOA
28472	8:07	272	2.051	Elizondo (BAZTAN), Santiago karrika, 2	URAK EGOITZAKO BEHEKO SOLAIRUA HARTU DU,
28595	8:07	272	2.051	Arizkun (BAZTAN)	URA ARIZKUNGO INDUSTRIALDEKO BURNE AROZTEGIA HARTEN ARI DA. URAK NABEA HARTU DU ETA KORRONTEAK ZURAK ERAMATEN DITU. BELDUR DIRA ZUBIAK KOLAPSATU EDO ERREPIDERA JOANEN DIREN...
28597	8:07	272	2.051	Elbete (BAZTAN), Ibaia karrika, 7	OHAR OROKORRA: METRO BETE UR DAGO KARRIKAN ETA AUTOAK ERAMATEN ARI DA.
28598	8:10	279	2.140	Elbete (BAZTAN), Karrika Nagusia, 10	URA ELBETEKO KARRIKA NAGUSIKO ETXEETAN SARTZEN ARI DA
28470	8:30	317	2.598	Elizondo (BAZTAN), Jaime Urrutia karrika, 30	ELIZONDOKO LIBURUZAINA ATERAEZINIK GERATU DA.
28469	8:32	320	2.631	Elizondo (BAZTAN), GILTXAURDI KARRIKA	JAKITERA EMATEN DUTE IGERILEKUETAN LAN EGITEN DUEN PERTSONA BAT HARRAPATUTA DAGOELA ETA IGERILEKUETATIK IRTEN EZINIK DAGOELA.
28593	8:38	328	2.729	Irurita (BAZTAN), Apote karrika, 23	URAK ETXABE BAT HARTU DUELA EMATEN DUTE JAKITERA
28600	8:38	328	2.729	Urdazubi	URA ETXEBIZITZA BATEAN SARTZEARI BURUZKO ABISUA
28471	8:42	334	2.796	Elizondo (BAZTAN), Jaime Urrutia karrika, 43	ABISUA: BI PERTSONA ETXABE BATEAN DAUDE ETA LEHENENGO SOLAIRURA IGO EZINIK DAUDE
28454	8:52	348	3.061	BAZTAN, Elizondoko osasun etxea	NORMALTASUNERA ITZULTZEKO LANETAN LAGUNTZA BEHAR DA ETA URA XUKATZEN ARI DA
28492	9:12	372	3.247	Elizondo (BAZTAN), Santiago karrika, 5	URAK SOTO BAT HARTU DU. ELEKTRIZISTA NOIZ IRITSIKO ZAIN DAUDE, ELEKTROPONPAK PIZTU AHAL IZATEKO.
28599	9:37	399	3.561	Arizkun (BAZTAN), BERGARA AUZO	ARGI-ZUTOIN BAT ERORI DA, ZUHAITZ BATEK ARRASTATUTA
28585	10:04	400	3.576	Elizondo (BAZTAN), Santiago karrika, 120	ABISUA: URA ETXE BATEAN SARTZEN ARI DA. GORAGOKO SOLAIRURA IGOTZEKO ESKATZEN ZAIE.
28489	10:16	395	3.531	BERTIZARANA, NA-1210 21 errepidea	URAK GAINEZKA EGIN DU ETA ERREPIDEA MOZTU DU
28477	10:33	383	3.372	Doneztebe,	DONEZTEBEN UHOLDEA IZATEARI BURUZKO ABISU OROKORRA IKUSKATZE-BISITA BATZUEN ONDORJOZ, DONEZTEBERA IRITSI ETA IKUSTEN DUGU EGOERA NORMALIZATU DELA.
28494	10:39	379	3.328	Elizondo (BAZTAN), Erabeta karrika, 1	GARAJE BAT XUKATZEN ARI DIRA
28463	10:44	374	3.271	DONEZTEBE, APARAN	GAS-IHESA APARAN INDUSTRIALDEAN
28589	11:03	354	3.052	Elizondo (BAZTAN), Menditurri karrika, 6	UHOLDEA: HASIERA BATEAN URA ZEN; ORDU BATZUEN BURUAN, BERRIZ, LOHIA (30 CM INGURU)
28476	11:12	346	2.948	Elbete (BAZTAN), Ibaia karrika, 6	URAK ETXABE BAT HARTU IZANARI BURUZKO ABISUA METRO ETA ERDI UR DAGO, ETA EZ DUTE XUKATZEKO PONPARIK
28591	11:16	342	2.911	Doneztebe/Santesteban, ROSA SEMINARIO karrika	URA ETXEKO ATARIAN SARTZEARI BURUZKO ABISUA



ID	ORDUA	ALTUERA	EMARIA	TOKIA	DESKRIBAPENA
28457	11:30	331	2.763	Elizondo (BAZTAN),	ELIZONDOKO UHOLDEAK
28473	12:25	281	2.169	Elizondo (BAZTAN), Jaime Urrutia karrika, 40	JATETXETIK JAKITERA EMATEN DUTE GAS-DEPOSITU BAT DAUKATELA IBAIAREN ONDOAN ETA PARETAK EMAN EGIN DUELA. DEPOSITUA, ITXURAZ, ONGI DAGO.
28493	13:12	2.67	199.8	Elizondo (BAZTAN), Santiago karrika, 19	METRO BETE UR BAINO GEHIAGO SOTO BATEAN
28490	13:33	260	1.910	Berro (BAZTAN),	ETXEBIZITZA BATERA EZIN IRISTEA. HORMA BAT ERORI DA ETA ZUHAITZEN BAT DAGO TRABA EGITEN DUENA
28487	13:58	242	1.726	Oharriz (BAZTAN)	URA BEHEKO SOLAIRU BATEAN. MAILA JAISTEN DENEAN, HURA XUKATZEN DUTE. XUKATZERIK EZ DUTENA IGOGAILUAREN ZULORA BIDERATZEN DUTE.
28482	14:07	240	1.651	Elizondo (BAZTAN), BRAULIO IRIARTE karrika, 11	URA XUKATZEN ARI DIRA. TXORKATILARAINO EDO IRISTEN DA.
28458	15:30	190	1.128	Ornoz (BAZTAN)	XUKATZE-LANAK HAN-HEMENKA
28453	17:18	184	1.066	Elizondo (BAZTAN),	KARRIKA NAGUSIA PRESIO HANDIKO UREZ GARBITZEN ARI DIRA.
28484	15:45	151	770	Elizondo (BAZTAN), BRAULIO IRIARTE karrika, 29	IGOGAILUAREN ZULOA UREZ BETETA
28483	17:27	149	740	Elizondo (BAZTAN), BRAULIO IRIARTE karrika, 19	AUZOKIDE BATEK ABISUA EMATEN DU: ADINEKO PERTSONAK BIZI DIRA ETA LOHI ASKO DAGO.
28485	19:37	119	522	Elizondo (BAZTAN), BRAULIO IRIARTE karrika, 35	URA IGOGAILUAN

## LARUNBATA, 2014ko UZTAILAREN 5a

ID	PARKEA	GERTAKARI MOTA	DATA ETA ORDUA	TOKIA	DESKRIBAPENA
28509	Zangoza	Salbamendua	2014-07-05, 23:07	Irunberri, NA-150	DATURIK EZ
28507	Oronoz	Laguntza teknikoa	2014-07-05, 14:55	Elizondo (BAZTAN), Etxebizitzaren Multzoa	DATURIK EZ
28517	Oronoz	Laguntza teknikoa	2014-07-05, 9:00	Elizondo (BAZTAN),	URAK IGERILEKUA HARTUA DU
28518	Oronoz	Laguntza teknikoa	2014-07-05, 9:00	Elizondo (BAZTAN),	OSASUN ETXEA URAK ETA LOHIAK HARTUTA DAGO
28519	Oronoz	Laguntza teknikoa	2014-07-05, 9:00	Elizondo (BAZTAN),	URAK ETA LOHIAK SOTOA HARTU DU
28520	Oronoz	Laguntza teknikoa	2014-07-05, 9:00	Elizondo (BAZTAN),	BAZTAN BALLEKO UDALETXEKO ETXABEAK URAK ETA LOHIAK HARTUTA DAUDE
28521	Oronoz	Laguntza teknikoa	2014-07-05, 9:00	Elizondo (BAZTAN),	ARIZKUNENAKO (KULTUR ETXEA) ETXABEA URAK HARTUTA DAGO
28522	Oronoz	Laguntza teknikoa	2014-07-05, 9:00	Elizondo (BAZTAN),	URA XUKATZEN ARI DIRA
28523	Oronoz	Laguntza teknikoa	2014-07-05, 9:00	Elizondo (BAZTAN),	PILOTALEKU ESTALIA URAK HARTUTA DAGO
28524	Oronoz	Laguntza teknikoa	2014-07-05, 9:00	Elizondo (BAZTAN),	ELIZONDOKO ESTALI GABEKO PILOTALEKUA URAK ETA LOHIAK HARTUTA DAGO
28525	Oronoz	Laguntza teknikoa	2014-07-05, 9:00	Elizondo (BAZTAN),	FUTBOL ZELAIA ETA ALDAGELAK LOHIEZ ETA UHOLDEAK ARRASTAKA ERAMANDAKO ZUHAITZ HONDARREZ BETETA DAUDE
28478	Oronoz	Salbamendua	2014-07-05, 1:48	Zugarramurdi, Zugarramurdiko pilotaleku estalia	Abisua: pilotalekuko aparkalekuan zegoen auto bat erori da eta argiak itzali zaizkio.

## 2014ko UZTAILAREN 6a, IGANDEA

ID	PARKEA	GERTAKARI MOTA	DATA ETA ORDUA	TOKIA	DESKRIBAPENA
28546	Oronoz	Laguntza teknikoa	2014/07/06, 9:10	Elizondo (BAZTAN), Etxebizitzaren Multzoa	UZTAILAREN 4AN, ELIZONDO JO ZUEN EKAITZ KONBEKTIBOAK ERAGINDAKO KALTE HANDIAK IGOGAILUETAKO URA XUKATZEARI EKIN ZAIO
28547	Oronoz	Laguntza teknikoa	2014/07/06, 9:10	Elizondo (BAZTAN), Elizondoko osasun etxea	IGOGAILUJAREN ZULOA URAK HARTUTA DAGO
28563	Oronoz	Laguntza teknikoa	2014/07/06, 10:51	BAZTAN, Emakumeari Laguntzeko Elizondoko azpiunitatea	DATURIK EZ
28549	Oronoz	Laguntza teknikoa	2014/07/06, 12:30	Elizondo (BAZTAN), MERKATUKO PLAZA	ELIZONDOKO KARRIAK ETA PLAZAK LOHIZ ZIKINDUTA AUDE, MERKATUKO PLAZAKO APARKALEKUA GARBITZEARI EKIN.
28554	Oronoz	Laguntza teknikoa	2014/07/06, 15:40	Elizondo (BAZTAN), Elizondoko Iriarte pilotalekua	UHOLDEEN GARBIKETA

## **Galdera, Foruzaingoak Guardian Homeland Security enpresari erositako materialari, adituen prestakuntzari eta kontratatutako zerbitzuei buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Víctor Rubio Martínez jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Foruzaingoak Guardian Homeland Security enpresari erositako materialari, adituen prestakuntzari eta kontratatutako zerbitzuei buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2014ko irailaren 19ko 101. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2014ko urriaren 10ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **ERANTZUNA**

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Víctor Rubio Martínez jaunak informazioa eskatu du Foruzaingoarekin lotutako zenbait gairi buruz (8-14/PES-00172). Hauxe da Lehendakaritza, Justizia eta Barneko kontseilariaren erantzuna:

1. 3. idatz-zatian aipatzen dena kenduta, ez dago jasota Foruzaingorako inongo hornigairik edo inongo laguntza-kontraturik egin denik Israelgo enpresekin, salbu eta hornigai horietakoren bat herrialde horretan egin eta Espainiako enpresek saltzen badute, azken kasu horretan, enpresa horiek hornitzaile izaki.

2. Foruzaingoak ez du inongo instrukziorik hartu Israelgo nazionalitatea duen inongo erakunde publiko edo pribatutako langile espezializaturen

eskutik. Ezin dugu zehatz-mehatz segurtatu iragan nazionalitate horretako langileek kidegoari atxikitako agentei prestakuntza eman dien.

3. Guardian Homeland Security enpresak honako materiala hornitu dio Foruzaingoari:

– 2012: 30 balen aurkako barneko, Rabintex markakoak, 16.036,20 euroko prezioan.

Balen aurkako barnekoetarako 30 zorro, Rabintex markakoak, 2.242 euroko prezioan.

– 2014: Balen aurkako barnekoetarako 55 zorro, Rabintex markakoak, 4.216 euroko prezioan.

Material horiek eskuratu ziren zuzeneko erosketaren prozedura erabiliz. Horren helburua zen SPYNAV, S.L. enpresari (Guardian Homeland Security enpresaren Nafarroako banatzailea) 2011n erositakoen ezaugarri berak zituzten barnekoak eskuratzea. Erosketa hura Ondare Zerbitzuaren (Kontratazioaren eta Aseguruen Atala) lehiaketa baten bitartez gauzatu zen, eta haren bidez 50 balen aurkako barneko erosi ziren, 25.500 euroko prezioan.

Hori jakinarazten dizut Legebiltzarreko Erregelamenduaren 194. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2014ko urriaren 10ean

Lehendakaritza, Justizia eta Barneko kontseilaria: F. Javier Morrás Iturmendi

## **Galdera, Nafarroaren merkataritza-balantzak hobera egin izanak diru-bilketan dauzkan eraginei buruzkoa.**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maiorga Ramírez Erro jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroaren merkataritza-balantzak hobera egin izanak diru-bilketan dauzkan eraginei buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2014ko irailaren 19ko 101. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2014ko urriaren 10ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **ERANTZUNA**

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du, 2014ko irailaren 11ko 2359 sarrera-zenbakia duena, Merkataritza-balantzak hobera egin izanak diru-bilketan izanen dituen eraginen proiektioari buruz (8-14/PES-00174). Hauxe erantzun dio Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguko kontseilariak:

Bigarren lehendakariorde eta Ekonomia eta Ogasuneko kontseilari Lourdes Goicoecheak irailaren 10eko agerraldian iragarri zuen bezala, Nafarroako Gobernuak 2014ko BPG errealdaren hazkundearen aurreikuspena gorantz berrikusi du, 4 hamarretan, % 1,5ekoa izateraino.

Gure perspektiben hobekuntzak babesa dauka BPGaren osaeran esku hartzen duten adierazle ekonomiko gehienak izaten ari diren bilakaeran. Eskariaren ikuspuntutik, txikizkako merkataritza, etxebizitzaren salerosketa eta ibilgailuen matrikulazioak, zeinek, beste batzuekin batera, etxeko eskariaren pultsua neurtzen baitute, hazten ari dira enpleguak hobera egiten duen zalantzak apaltzen diren neurrian. Horren ondorioz, Nafarroako ondasunen inportazioa % 10,1 hazten ari da uztailera bitarteko metatuan, eta kanpoko eskari garbiaren garapenerako galga bat da. Nazioan, oro har, gertatzen ari denaz bestera, esportazioen hazkundearekin, % 11,4koa, lortzen ari da merkataritza-saldoak ez dezala okerrera egin eta hazten jarrai dezala. Urtarriletik, Nafarroako merkataritza-superabita 2.359 milioi eurokoa da, % 12,8 handiagoa aurreko urteko aldi berarekin alderatuta.

Gure aurreikuspenean jasota dago kanpoarekiko ondasunen elkartrukean gertatutako zabalkun-

de hori hertsiki lotuta dagoela industriaren aurrerapenarekin, eta barneko eskariarekin batera, Nafarroako BPGaren hazkunde bultzatuko duela datozen hiru hilekoetan. Bestela esanda, kanpoko eskariak jarduerarako egiten duen ekarpen positiboak jada inplizitu dago Politika Ekonomikoaren Zerbitzuak aurtengo BPGerako aurreratzen duen % 1,5eko batez besteko aurrerapenean.

Hazkunde ekonomikoaren tasaren berrikuspenean aurrean, ohikoa da galdetzea gaurkotze horrek nolako eraginak sor ditzakeen beste aldagai batzuetan. BPGarekin lotuago dauden aldagaien artean, enplegua dago, eta lotura horren hurbilketa Okum Legea deitutakoaren bidez egiten da, eta sektore publikoaren esparruan, honakoari buruzko interesa sortzen du: BPG handiagoa ala txikiagoa izateak nolako eragina izanen duen zergen bidezko diru-sarreretan.

Azken horri dagokionez, bibliografiak honako hautua egin du: sentiberatasunak edo malgutasunak erabiltzea BPGaren portzentajearen aldaketa baten aurrean diru-sarrera publikoetan egonen den aldaketa kalkulatu eta kuantifikatzeko. Ez da ohikoa diru-sarrera publikoak BPGaren osagai isolatu batekin lotzen dutenik, nola baita merkataritza-balantza, zeren eta, ekonomian dauden elkarrekiko erlazioak tarteko, eragiten diren kalkuluek sendotasun txikia baitute. Diru-sarrera publikoen korrelazio altuago eta aipagarriagoak BPGaren agregatuarekin edo kantsumoarekin lortzen, horrek balio erantsiaren portzentaje handia egiten baitu.

Diru-sarreraren malgutasunekin lotuta, 2012ko abenduaren 20an, ECC/2741/2012 Agindua onetsi zen, diru-sarreraren eta gastuen joera-aurreikuspenen eta Espainiako ekonomiaren erreferentziako tasaren kalkuluari buruzkoa, Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioaren Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko Legearen agindua betetzeko. Agindu horrek BPG potentziala kalkulatzeko metodologia garatzen zuen, bai eta diru-sarrera eta gastu publikoen osaketa ziklikoa ere, Europar Batzordeak horretarako erabilitako metodologiari jarraituz, apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoko 11.6 artikulua aipatzen duen bezala. Kalkulu horren osagai bezala, Batzordeak Espainiarako diru-sarreraren eta gastuen malgutasunak ematen ditu. Diru-sarreraren mailaren malgutasuna lortzen da banakako malgutasunen batez besteko ponderatu gisa, diru-sarreraren bost

kategoriaren ekoizpeneko arrakalaren aldean: PFEZa, Sozietateen gaineko Zerga, zeharkako zergak, kotizazio sozialak eta zerga bidezkoak ez diren diru-sarrerak.

Apirilaren 27ko 2/2013 Lege Organikoak berak ezartzen du metodologia baliagarri bat diseinatu beharra dagoela Espainiako autonomia erkidego guztientzat. Horri dagokionez, agindu berak aipatzen du "autonomia erkidegoen zergen malgutasunei buruzko kalkulua bere bilakaera historiko laburra eta ez-egonkorra dela-eta zaila da, finantzaketa autonomikoaren sistemak denboran zehar izan dituen aldaketen ondorioz (Estatuaren zergen transferentzietan ordezte ugari izan baitira), eta horrek izugarri areagotuko luke kalkulua-ren konplexutasuna, baina horren truke zehaztapenetan irabazi aipagarriak lortu gabe. Gastuaren edo diru-sarreraren osagai jakin baten sentiberatasun ziklikoa bere izaeraren arabera da, eta ez egiten deneko edo diru-bilketa gauzatzen deneko lurraldearen arabera. Lurraldeetan zergen araudian desberdintasun batzuk egoteak ez du justifikatzen haiek aintzat hartzeko malgutasun desberdinak aplikatu behar izatea (...). Autonomia erkidegoen ziklo ekonomikoaren eta naziokoaren artean egon daitekeen dibergentziari dagokionez –horrek, izan ere, hartarako kalkulu berezia egitea eskatuko luke–, esan beharra dago eskura daukagun esperientzia enpirikoak agerian jartzen duela bi zikloetarako sinkronia maila handia dagoela,

eta, gainera, sinkronia horrek azken urteetan gora egin duela.

Azken batean, aginduak berak aitortzen du egokia dela diru-sarrerak direla eta malgutasun berak erabiltzea autonomia erkidegoetan eta nazio mailan, eta agindu horren 1. taulan jasotzen den bezala, diru-sarrera guztien malgutasuna BPGaren ekoizpen-arrakalaren aldean 1ekoa da.

Gai honi buruz idatzi zuten beste autore aipagarri batzuk bat datoz esaterakoan Espainian oso zaila dela malgutasun horiek ebaluatzea, azken urte hauetan izan ditugun egiturazko aldaketa handiak direla eta. Beste herrialde batzuetan, non esparruak egonkorragoak baitira, ekonomialariek 1,5 inguruko malgutasunak aurkitu dituzte.

Aurrez azaldutako guztiaren ondorioz, BPGaren aldaketa jakin batek diru-bilketan izanen lukeen eragina kalkulatzeko biderik egokiena da malgutasunak erabiltzea, eta ziklo autonomikoaren eta nazionalaren artean dagoen sintonia dela eta, Estatu osorako kalkulatuak sentiberatasunak erabil daitezke.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2014ko urriaren 9an

Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguko kontseilaria: Lourdes Goicoechea Zubelzu

## Galdera, "osasunerako zentimoa" deitutakoa itzultzeari buruzkoa.

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maiorga Ramírez Erro jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, "osasunerako zentimoa" deitutakoa itzultzeari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2014ko irailaren 19ko 101. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2014ko urriaren 10ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### ERANTZUNA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak idatziz erantzuteko galderak egin ditu, 2014ko irai-

laren 11ko 2360 eta 2361 sarrera-zenbakiak dituztenak, "osasunerako zentimoa" deitutakoa –berez, zenbait hidrokarburoren txikizkako salmentaren gaineko zerga– dela-eta egin beharreko itzulketei buruz (PES-175 eta 176). Hauxe erantzun dio Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguko kontseilariak:

1. Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak C82/12 gaia zela-eta 2014ko otsailaren 27an emandako epaiaren exekuzio-prozesuaren ezauzgarri berezi eta zehatzak direla eta, oso zail gertatzen da, denbora iraganda ere, hark ukituta daudela jotzen duten zergadunek eskatutako kopuruaren kalkulu zehatza egitea.

Horri dagokionez, honakoak aipa daitezke ebaluazio hori egiteko oztopo nagusi gisa:

a) Itzulketarako eskubidea duten pertsonen kopurua, zeinak hartzen baititu preskribatu ez diren urteetan zerga hori jasan zutela demostratzeko modua duten zergadun guztiak, bidegabeko diru-sarrera itzultze aldera. Une honetan, 14.393 eskari baino gehiago daude erregistratuta.

b) Itzulketarako eskubide hori justifikatzeko eskatzen diren zehaztasunak, zeren eta hornikuntza bakoitzeko faktura bakoitza zehaztu beharra baitago, eta horrek izugarri handitzen du egindako itzulketa-eskari bakoitzaren erregistro kopurua. Guztira, sistema informatikoan, 700.000 kontsumo-datu baino gehiago kargatu dira.

a) Sistemari informatikoan jada kargatuta dauden datu horiei gehitu beharko litzaieke paperean aurkeztutako espedienteak, zeinak asko baitira. Izan ere, eskaria paperean aurkezteko aukera ezin zaie ukatu prozesu honen onuradunei, baina Zerga Berezien eta Bestelako Zergan Atalaren kudeaketa-lana izugarri handitzen du, atal hori baita eskariak izapidetzeko arduraduna. Une honetan, gisa horretako 6.000 espediente baino gehiago daude (paperean aurkeztuak), prozesatu beharrekoak, eta batzuetan gertatuko da datu horiek eta jada grabatuta daudenak bikoiztuta egonen direla, aurreko lerrokadan esandakoari jarraituz.

2. Aurreko guztia dela eta, itzuli beharreko kopuruari buruz kalkulatu diren datu eta aurreikuspenak hurbilketa batzuk baizik ezin dira izan.

Lehenengo hurbilketetako bat 2010etik 2012ra bitarteko diru-bilketa orokorraren kopurua kalkulatzeko egin zen (horiek dira ukitutako aldi nagusiak), eta balizko erreklamazioen % 50eko tasa aplikatu zitzairen. Portzentaje hori izan zen lehenengo unean ZAEAk bere esparruan aintzat hartu zuena. Eragiketa horrek 38 milioi euroko kostua du emaitza.

3. Hala eta guztiz ere, gero kalkulu zehatza erabili dira, sartzen joan diren espedienteak ikusita; horren arabera, kopurua nabarmen txikiagoa izanen da, 20 milioi euro ingurukoa. Nolanahi ere, fidagarritasun gutxiko aurreikuspenak dira, tasa handiago bat lortzen ez den arte, eskariak sistema informatikoan grabatzeari dago-

kionez ez ezik, haien berrikuspenari dagokionez ere, zeren eta akatsak, bikoiztasunak, justifikatzeko hutsak eta abar gerta baitaitezke.

4. Itzuli beharreko kopuruaren bolumenaren jaitzieran eraginen lukeen beste inguruabar bat (oraindik ere modu fidagarrian kalkulatzetik ez dagoena) 2003/96/CE zuzentarauak ezarritako gutxieneko zergapetzearen aplikazioari dagokiona da, zeinak eraginen bailuke 2012ko gasolio-kontsumoarengatik itzultzeko eskatu diren kuoten zati handi bat ezin artatzea, Europako arau hori urratzeagatik. Izan ere, zuzentaru horri jarraituz, soilik itzuli beharko liriteke aipatutako 2003/96/CE Zuzentaruako 4.1 artikulua exijitzen duen gutxieneko zergapetze-maila gaintzen dutenak. ZAEA eta Nafarroako Zerga Ogasuna oraindik ere aztertzen ari dira zein den gai horren aplikazio praktikoa.

Horri dagokionez, zehaztu beharra dago Europar Batzordeak, 2014ko abuztuaren 29an, erantzun egin diola Europar Batasunean Espainiak duen ordezkari iraunkorrari, esanez “zenbait hidrokarburoren txikizkako salmenten gaineko zergaren bidez bildutako kopuruak itzultzeko betebeharrak ez lituzkeela hartuko sartutako kopuru guztiak, baizik eta soilik Europar Batasunaren araudiak preskribatutako zerga berezien gutxieneko maila gaintzen dutenak”.

5.- Bidegabeko diru-sarrera horiek ordaintzeko egutegia honakoa izanen da, gutxi gorabehera:

a) 2014ko azaroan eta abenduan zehar data horietara arte konprobatutako itzulketa espedienteetatik heldu diren kopurua itzuliko dira. Une honetan, ezin da kopuru horien zenbatekoari buruzko aurreikuspen fidagarririk egin.

b) 2015ean zehar gainerako kopuruak itzuliko dira, espedienteak direla-eta egiten diren diren egiaztapenen arabera.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2014ko urriaren 9an

Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguko kontseilaria: Lourdes Goicoechea Zubelzu

## **Galdera, “osasunerako zentimoa” dela-eta egiteko dauden itzulketak ordaintzeko prozesurako egutegi-aurreikuspenei buruzkoa.**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maiorga Ramírez Erro jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, “osasunerako zentimoa” dela-eta egiteko dauden itzulketak ordaintzeko prozesurako egutegi-aurreikuspenei buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2014ko irailaren 19ko 101. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2014ko urriaren 10ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **ERANTZUNA**

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak idatziz erantzuteko galderak egin ditu, 2014ko irailaren 11ko 2360 eta 2361 sarrera-zenbakiak dituztenak, “osasunerako zentimoa” deitutakoa –berez, zenbait hidrokarburoren txikizkako salmentaren gaineko zerga– dela-eta egin beharreko itzulketei buruz (PES-175 eta 176). Hauxe erantzun dio Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguko kontseilariak:

1. Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak C82/12 gaia zela-eta 2014ko otsailaren 27an emandako epaiaren exekuzio-prozesuaren ezauzgarri berezi eta zehatzak direla eta, oso zail gertatzen da, denbora iraganda ere, hark ukituta daudela jotzen duten zergadunek eskatutako kopuruaren kalkulu zehatza egitea.

Horri dagokionez, honakoak aipa daitezke ebaluazio hori egiteko oztopo nagusi gisa:

a) Itzulketarako eskubidea duten pertsonen kopurua, zeinak hartzen baititu preskribatu ez diren urteetan zerga hori jasan zutela demostratzeko modua duten zergadun guztiak, bidegabeko diru-sarrera itzultze aldera. Une honetan, 14.393 eskari baino gehiago daude erregistratuta.

b) Itzulketarako eskubide hori justifikatzeko eskatzen diren zehaztasunak, zeren eta hornikuntza bakoitzeko faktura bakoitza zehaztu beharra baitago, eta horrek izugarri handitzen du egindako itzulketak eskari bakoitzaren erregistro kopurua. Guztira, sistema informatikoan, 700.000 kontsumo-datu baino gehiago kargatu dira.

a) Sistemari informatikoan jada kargatuta dauden datu horiei gehitu beharko litzaieke paperean aurkeztutako espedienteak, zeinak asko baitira. Izan ere, eskaria paperean aurkezteko aukera ezin zaie ukatu prozesu honen onuradunei, baina Zerga Berezien eta Bestelako Zergan Atalaren kudeaketa-lana izugarri handitzen du, atal hori baita eskariak izapidetzeko arduraduna. Une honetan, gisa horretako 6.000 espediente baino gehiago daude (paperean aurkeztuak), prozesatu beharrekoak, eta batzuetan gertatuko da datu horiek eta jada grabatuta daudenak bikoiztuta egonen direla, aurreko lerrokadan esandakoari jarraituz.

2. Aurreko guztia dela eta, itzuli beharreko kopuruari buruz kalkulatu diren datu eta aurreikuspenak hurbilketa batzuk baizik ezin dira izan.

Lehenengo hurbilketetako bat 2010etik 2012ra bitarteko diru-bilketa orokorraren kopurua kalkulatzeko erabiliko diren datuak (horiek dira ukitutako aldi nagusiak), eta balizko erreklamazioen % 50eko tasa aplikatu zitzaizkien. Portzentaje hori izan zen lehenengo unean ZAEAk bere esparruan aintzat hartu zuena. Eragiketa horrek 38 milioi euroko kostua du emaitza.

3. Hala eta guztiz ere, gero kalkulu zehatzagoak erabili dira, sartzen joan diren espedienteak ikusita; horren arabera, kopurua nabarmen txikiagoa izanen da, 20 milioi euro ingurukoa. Nolanahi ere, fidagarritasun gutxiago aurreikuspenak dira, tasa handiago bat lortzen ez den arte, eskariak sistema informatikoan grabatzeari dagokionez ez ezik, haien berrikuspenari dagokionez ere, zeren eta akatsak, bikoiztasunak, justifikatzeko hutsak eta abar gerta baitaitezke.

4. Itzuli beharreko kopuruaren bolumenaren jaitziera eraginen lukeen beste inguruabar bat (oraindik ere modu fidagarrian kalkulatzeko ez dagoena) 2003/96/CE zuzentarauak ezarritako gutxieneko zergapetzearen aplikazioari dagokiona da, zeinak eraginen bailuke 2012ko gasolio-kontsumoarengatik itzultzeko eskatu diren kuoten zati handi bat ezin artatzea, Europako arau hori urratzeagatik. Izan ere, zuzentzarau horri jarraituz, soilik itzuli beharko liriteke aipatutako 2003/96/CE Zuzentzarauko 4.1 artikulua exijitzen duen gutxieneko zergapetze-maila gaintzen dutenak. ZAEA eta Nafarroako Zerga Ogasuna oraindik ere

aztertzen ari dira zein den gai horren aplikazio praktikoa.

Horri dagokionez, zehaztu beharra dago Europar Batzordeak, 2014ko abuztuaren 29an, erantzun egin diola Europar Batasunean Espainiak duen ordezkari iraunkorrari, esanez “zenbait hidrokarburoren txikizkako salmenten gaineko zergaren bidez bildutako kopuruak itzultzeko betebeharrak ez lituzkeela hartuko sartutako kopuru guztiak, baizik eta soilik Europar Batasunaren araudiak preskribatutako zerga berezien gutxieneko maila gainditzen dutenak”

5.- Bidegabeko diru-sarrera horiek ordaintzeko egutegia honakoa izanen da, gutxi gorabehera:

a) 2014ko azaroan eta abenduan zehar data horietara arte konprobatutako itzulketaren espedienteetatik heldu diren kopurua itzuliko dira. Une honetan, ezin da kopuru horien zenbatekoari buruzko aurreikuspen fidagarriarik egin.

b) 2015ean zehar gainerako kopuruak itzuliko dira, espedienteak direla-eta egiten diren diren egiaztapenen arabera.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2014ko urriaren 9an

Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Kontseilaria: Lourdes Goicoechea Zubelzu

## **Galdera, jakiteko zer egunetan jakinarazi zitzaizkion Nafarroako Gobernuari Arbitraje Batzordearen maiatzaren 15eko ebazpena, 2007tik 2011ra bitarteko BEZaren kuoten itzulketari buruzkoa, eta VWren 2007tik 2011ra bitarteko tributazioa dela-eta Auzitegi Gorenean jarritako errekurtsioa.**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betetz, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin Maiorga Ramírez Erro jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera zera jakitekoa zen, ea zer egunetan jakinarazi zitzaizkion Nafarroako Gobernuari Arbitraje Batzordearen maiatzaren 15eko ebazpena, 2007tik 2011ra bitarteko BEZaren kuoten itzulketari buruzkoa, eta VWren 2007tik 2011ra bitarteko tributazioa dela-eta Auzitegi Gorenean jarritako errekurtsioa. Galdera argitaratu zen 2014ko irailaren 19ko 101. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2014ko urriaren 10ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **ERANTZUNA**

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du, 2014ko iraila-

ren 17ko 2421 sarrera-zenbakia duena, Nafarroako Gobernuari Arbitraje Batzordearen maiatzaren 15eko ebazpena jakinarazteari buruz eta VWren 2007tik 2011ra bitarteko tributazioa dela-eta Auzitegi Gorenean jarritako errekurtsioari buruz (8-14/PES-00179). Hauxe erantzun dio Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Kontseilariak:

Arbitraje Batzordearen maiatzaren 15eko ebazpena 2014ko ekainaren 3an jakinarazi zen.

VWren 2007tik 2011ra bitarteko tributazioa dela-eta Auzitegi Gorenean jarritako errekurtsioaren jakinarazpena, berriz, 2014ko irailaren 15ean egin zen.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2014ko urriaren 9an

Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Kontseilaria: Lourdes Goicoechea Zubelzu